

Aski gutxi denean inoiz ez da aski

**Maider IANTZI
GOIENETXE**

Marta Peiranoren “El enemigo conoce el sistema” irakurri dudanetik, sudur kritikoz usaintzen ditut hainbertze maite ditudan txokolate, kafe eta ogi egin berriaren aroma kaleraino zabaltzen duten kafetegiak. Antza denez, gehienetan difusore batetik ateratzen dira lurrinak, eta horri esker, %300 goititzen dira salmentak.

Usainen bidez, behar duguna baino puskaz gehiago jan dezagun lortzen dute. Erraza da, milaka urte daramalako gizakiak eskasia kudeatzen, baina ez oparotasuna. Koipea, gatza eta azukrea nahasiz gozotasuna handitzen da, eta horrekin jokutzen du industriak. Lau enpresak ekoizten omen dituzte munduan

erosten ditugun usain eta zapore guztiak. Givaudan, Firmenich, International Flavors & Fragrances (IFF) eta Symrise dira. Ohikoa den bezala, beren irudiak ez du zerikusirik eskaintzen duten produktuarekin. Gure zaporerik gogokoenak birsortzen dituzte, haurtzaroko usainak. Herriaren arabera desberdinak.

Erraten da usaimena dela beharbada gutxien baloratzen dugun zentzumena, baina sakonen eta zuzenen eramaten gaituena denboran eta espazioan edozein puntutara, tximista baten abiadan. Bakoitzak ditu bereak. Sandwich egin berri bat, gazta urtua bazterretatik isurtzen zaiola, krus-krus egiten duen ogi txigortuarekin, edo natilla bat paxintxiekin. Ikusten? Koipea, gatza eta azu-

krea. Amatziek denak nahasian paratzen zizkiguten mahaian, eta guk zenbat eta gehiago jan, kontenago jartzen ziren. Guk ez bezala, eskasia sufritu zuten.

Aunitz oroitzen ari naiz beraiekin, eta ilusioa egin dit ohartzeak haiengandik jaso dudala janariaren goxotasuna eta garrantzia. Kontrolik gabe kontsumitzera garamatza bizi garen sistemak, janaria eta gauza guztiak, gehienoi eros ahalmena txikitzen ari zaigun bitartean. Hito Steyerl artistak dioen bezala, lurrik ez badago gerta liteke erortzen ari zarela ez konturatzea ere, grabitatea txikiagoa izan daiteke eta arin senti zaitezke jendarte osoak erortzen ari direlarik, zu bezala. Rexu eta Beni, eskutik hartuko zaituztet «uuumm» egiterakoan. •

21 urte!

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

21 urte joan dira bikoteak eta seme-alabek kotxe istripua izan zutenetik. Konstituzio egun madarikatu hartan, hain zuzen! Bi astera, lau eta zazpi urteko haur biak onik irten ziren ospitaletik. Zurrunbilo ero haren guztiaren emaitza bikoteak burmuina betiko kaltetu izana da. Bera izan da kaltetu zuzenena, bizirik bai baina bizi nahi zuen bizitza bizitzerik gabe. Halere, zoriontsu sentitzearen eta frustratzearen arteko borrokan gehienetan irabazle ateratzen ikasi du.

Gogoan dut iruñear lagun batek egun ilun haietan esana, «orain hik eutsi behar diok, hi ezin haiz erori, bestela bat

ez lauok eroriko zarete». Betiko iltzatu zitzaidan argi hura energia iturri izan dut geroztik.

Ene buruari egiten dizkiodan galderek erantzun argia eta berehalakoa izaten dute. Zer nahi dut? Bizitza zukutu; minutu bakoitza bizi; maitatzea eta maitatua izatea; finean, sentitzea... Nola? Neroni zainduta, etxekoak hobe ditut zainduko-eta, ongi sentitzen banaiz.

Dema horretan asko lasaitzen nau Aurretiazko Borondateen Dokumentua (ABD) egin izanak. Iruñeako ospitalean izan nuen haren berri 2003an. Adibidez, niretzat hil ala bizikoa da jasotzea “...eutanasia aktiboko teknikak aplikatzea

nahiko nituzke, minik gabekoak eta azkarrak”. Arrazoiak sobera daude mundu guztiak berea egin dezan.

Bizitzaren abiada biziak eta eguneroak automata bilakatzen gaitu, zentzuak itzaltzen dizkigu, usaintzen ez, ikusten ez, entzuten ez, sentitzen ez dugun gurpil zoroan doazen makinak bagina bezala. Orain 21 urte gertatuak begiak ireki zizkidan eta eguneroko gurpil zoroa hausten lagundu. Bada, kolpe latzik jaso beharrik gabe, heldu tinko zure bizitzaren lemarri; “...bizitzak ez dit ematen” egoera apurtu, hasi zerorri zaintzen eta abiatu bizitzari eskatzen diozunaren bila. •